

Euskal AEko industria-jarduerak % 0,6 egin zuen gora 2022ko uztailean


2022. urteko lehen zazpi hiletako hazkuntza metatua % 6,7koa izan da

Euskal AEko industria-ekoizpena 2022ko uztailean 2021eko hil berekoa baino % 0,6 handiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera.

Uztailean, aurreko hilarekin –2022ko ekaina– erkatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 4,2 egin du behera, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko uztaileko indizearen bilakaera, 2021eko uztailearekin alderatuta, positiboa izan da *Energiaren* sektorean. Hartan, energia elektrikoaren ekoizpena eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira; ekoizpenean % 26,4ko hazkuntza izan da. Ekoizpenak pixka bat egin du gora, era berean, *Ekipo-ondasunetan* (hartan sartzen dira motordun ibilgailuen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintzakoa); % 0,3ko hazkuntza izan du, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Urte arteko % 3,6ko beherakada izan dute jardueran, ordea,

Tarteko ondasunetako jarduerak, besteak beste, metalurgiak eta produktu metalikoen fabrikazioak, industria kimikoak eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioak.

Kontsumo-ondasunek, bestalde, urte arteko portaera negatiboa izan dute; beherakada % 6,7koa izan da sektore osorako, *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan* ekoizpenak % 8,4 egin duelako behera eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* ekoizpenak % 6,3 egin duelako behera. Altzari eta etxeko tresnen fabrikazioa dira, besteak beste, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* sektoreko jarduerak. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektorearen barruan sartzen dira honako jarduera hauek: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta arropen jantzigintza.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	0,6	6,7	-4,2
Araba/Álava	-3,9	5,8	-6,0
Bizkaia	2,9	8,1	-4,9
Gipuzkoa	1,2	5,8	-2,3
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-6,7	4,0	-4,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,4	-2,2	0,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-6,3	5,7	-5,4
Ekipo-ondasunak	0,3	11,8	-2,7
Bitarteko ondasunak	-3,6	1,8	-4,5
Energia	26,4	15,3	-1,6

(p)Behinbehineko datuak

m/m-12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Irailaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, EAEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2022ko uztailean urte arteko hazkuntza handiena honako hauek izan dute: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 30,5), *Garraio-materiala* (% 4,7) eta *Makinak eta ekipoa* (% 2,9). Kontrara, ekoizpenean beherakada handienak izan dituzten sektore esanguratsuenak honako hauek izan dira: *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 7,7ko beherakada), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 4,6) eta *Material eta ekipoa elektrikoa* (% 3,9).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Uztaila 2022

	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	-7,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	0,5
Kautxua eta plastikoak	-1,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,6
Materiala eta tresna elektrikoak	-3,9
Makineria eta tresneria	2,9
Garraio-materiala	4,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	30,5

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Irailaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko uztailean, Industria-ekoizpenaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban; bertan, % 3,9 egin du atzera industria-jarduerak. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, portaera positiboa izan da; % 2,9ko eta % 1,2ko hazkuntza izan zuten, hurrenez hurren.

2022KO LEHEN ZAZPI HILETAKO BALANTZEA

2022ko urtarilaren eta uztailaren arteko aldian, industria-sektorean hazkuntza metatua % 6,7koa izan da. Bilakaera positibo hori honako hauen portaera onaren ondorio izan da: *Energia*, *Ekipo-ondasunak*, *Kontsumo-ondasunak* eta *Tarteko ondasunak*; haietan, aurten, orain arte, % 15,3ko, % 11,8ko, % 4,0ko eta % 1,8ko hazkuntza metatuak izan dira, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasunen* hazkuntza metatua *Kontsumo ez-iraunkorren ondasunen* bilakaera positiboaren (% 5,7) ondorio da; izan ere, *Kontsumo iraunkorren ondasunek* portaera negatiboa izan dute, % 2,2koa, urteko lehen zazpi hiletan.

Lurraldeen arabera, hirurek izan dituzte tasa positibo metatuak: % 8,1ekoa Bizkaian, % 5,8koa Araban, eta % 5,8koa Gipuzkoan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea **% 83,68ko** babesarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62